

2018ko urtarrilaren 15a, astelehena

## II. ERANSKINA

## IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

a) Familia-unitatearen urteko errenta (atal honetan gehienez eman daitezkeen puntuak lortu arte pilatu daitezke kontzeptuak).

– 2016ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 9.172,80 euroak gainditzen: 0,5 puntu.

– 2016ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu: 0 puntu.

– Aurreko puntuazioa alde batera utzita, eskatzaileaz gain duen adin txikiko seme/ahabako: 0,25 puntu

– Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 1,5 puntu.

b) Bizilekuaren hurbiltasuna (kontzeptu ez metagarriak).

– Ikaslearen etxea eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik: 5 puntu.

– Ikaslearen etxea eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakidean egoteagatik: 2 puntu.

– Eskatutako ikastetxea dagoen herrian izatea ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: puntu 1.

– Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo. 0,5 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe bateko eragin-eremuan izatea ikaslearen lantokia edo haren aitaren, amaren edo lege-ordezkarriaren bizilekua: 2 puntu. (puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean lan egiteagatik eskuratu daitezken puntuekin).

– Atal honetako puntuak, gehienez ere: 5 puntu.

c) Ikastetxean ikasi edo lan egiten duten senitartekoak (kontzeptu ez metagarriak).

– Anaia-arreba bat edo gehiago eskatutako ikastetxean edota atxikitako ikastetxe batean matriculatuta egoteagatik: 9 puntu.

– Aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe batean lan egitea: 7 puntu. (puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik eskuratu daitezkeen puntuekin).

– Atal honetako gehienezko puntuazioa: 9 puntu.

d) Familia ugariko kide izatea.

– Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: puntu 1.

– Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

e) Familia-harreran egotea:

– Ikasle eskatzailea familia-harreran egoteagatik: puntu 1.

2018ko urtarrilaren 15a, astelehena

f) Desgaitasuna (kontzeptu honengatik, 2 puntu, gehienez ere).

– Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu.

– Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena baldin bada: puntu 1.

g) Kooperatiba-bazkide izatea.

– Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

h) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak ezarritako beste egoera adierazgarri batzuk.

– Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak askatasunez erabakitako irizpideak (aurrez adierazitakoak ere izan daitezke), eta ezartzeko irizpide publiko, objektibo eta ez-diskriminatzaileak erabiliko dira (ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialetan oinarritutako irizpide diskriminatzailek onartu): 1 puntu, gehienez ere (irizpideak ezagutzera emango dira eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari jakinarazi beharko zaizkio eskabideak aurkezteko epea ireki baino lehen).